

A light brown map of the Basque Country, showing its regional boundaries. The map is centered on the page, and the title text is overlaid on it.

Euskadiko museoak eta bildumak

2016ko **estatistika-txostena**

EUSKO JAURLARITZA

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA



GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

AURKIBIDEA	Or.
AURKEZPENA.....	3
METODOLOGIA	4
1.- EUSKADIKO MUSEO-ESKAINZA: OINARRIZKO ELEMENTUAK.....	5
1.1.- Euskadiko museo eta bildumen kokapena.....	5
1.2.- Museo eta bildumen tipologia.....	5
1.3.- Titulartasuna eta figura juridikoa	7
1.4.- Kudeaketa-mota.....	8
1.5.- Eratutako urtearen arabera antzintasuna.....	8
1.6.- Lagunen elkarrekin.....	10
2.- AZPIEGITURA, ZERBITZUAK ETA EKIPAMENDUAK.....	12
2.1.- Eraikinaren ezaugarriak	12
2.2.- Zerbitzuak eta ekipamenduak.....	14
2.3.- Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologia.....	15
3.- SARRERA	18
3.1.- Jendearentzako irekita egoten diren egunak eta sarrera-mota	18
3.2.- Sarreraren ezaugarri ekonomikoak.....	19
4.- MUSEOEN JARDUERAK.....	22
4.1. Museo eta bildumetako bisitariak	22
4.2.- Erakusketak eta beste jarduera batzuk	25
4.3. Argitalpenak.....	27
5.- MUSEOETAKO LANGILEAK	29
5.1.- Museo eta bildumei atxikitako langileak eta horien lan-harremana	29
5.2.- Langileen lanbide-kategoria	30
5.3.- Langileen banaketa, sexuaren arabera.....	32
5.4.- Lanaldi-mota	33
6.- DATU EKONOMIKOAK	34
7.- MUSEO-FUNTSAK.....	35
8.- 2016KO ADIERAZLE NAGUSIAK.....	38
ERANSKINAK	
1. eranskina: 2016ko estatistikan parte hartu duten museoak eta bildumak	40
2. eranskina: Ikerketa egiteko erabilitako galdetegia	42
IRUDIEN AURKIBIDEA	54

AURKEZPENA

Hezkuntza eta Hizkuntza Politika Sailaren Kultura Ondarearen Zuzendaritzaren Museoen Zentroak, bi urtez behin, Euskadiko Museo eta Bildumen Txostena egiten du. Horren bidez, Euskadiko museoen sektoreari buruzko alderdi nagusiak aurkeztu nahi ditu eta, batez ere, urtea ixtean dauden datuak eguneratu.

Txosten honetan 2016ko emaitza nagusiak agertzen dira eta hiru lurralde historikoetako 61 museo eta bildumak hartu dute parte.

Emaitza horiek honako dimentsio hauei buruzko datuak ekartzen dituzte:

- museo-sarearen ezaugarri orokorrak,
- azpiegituren ezaugarriak,
- eskaintzen dituzten zerbitzuak eta erabilgarri dagoen ekipamendua,
- sarbidea,
- informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabiltzea,
- museo-erakundeetako langileei buruzko datuak,
- datu ekonomikoak, eta
- museo-funtsen informazioa.

Azterketa honek Euskadiko museo-sektorearen gaur egungo egoeraren irudi orokorra ematen du, eta aukera ematen du museo-azpiegituren ezaugarriak ezagutzeko eta beste lurralde batzuekin alderatzeko ere.

Eskerrak eman nahi dizkiegu Euskadiko museoen eta bildumen arduradunei eta talde teknikoei, txosten hau egiteko eskainitako informazio eta ezagutzarengatik.

METODOLOGIA

Parte-hartzea

Estatistika honetan hiru lurralde historikoetako 61 museo eta bildumak hartu dute parte. 1. eranskinean doa 2016an parte hartu duten museo eta bildumen zerrenda.

Garatu diren edukiak

Txosteneko kapituluak erabilitako galdetegian jasotako gai hauei buruzkoak dira, besteak beste: Erakundeari buruzko datu orokorrak; azpiegitura, zerbitzuak eta ekipamendua; sarrera; erakundearen jarduera; langileak; datu ekonomikoak; museoetako funtsak. 2. eranskinean doa Ikerketan erabilitako galde-sorta.

Emandako informazioa

Emandako informazioa osoa izan da; kasurik gehienetan, galde-sortako item guztiei erantzun zaie. Hala ere, grafiko edo taula guztietan ageri da erantzun-oinarria; hau da, aldagai bakoitzari zehazki erantzun dion erakunde-kopurua.

Ikerketaren fitxa teknikoa

Metodologia	Norberak betetako inkesta
Informazioa eskuratzeko tresna	Galdera itxidun galdetegia
Lortutako azken lagina	61 museo eta bilduma
Informazioa noiz bildu zen	2017ko urtarrilaren 1etik martxoaren 31ra
Ikertutako urtea	2016
Lurralde eremua	Euskal Autonomia Erkidegoa

1.


EUSKADIKO MUSEO-ESKAITZA: OINARRIZKO ELEMENTUAK

Kapitulu honetan, Euskadiko museo eta bildumen oinarrizko ezaugarriei buruzko ikuspegi orokorra eskaintzen da: kokalekua, tipologia, titulartasuna, kudeaketa-modalitatea, antzintasuna eta patronaturik edo lagunen elkarterik dagoen.

1.1.-EUSKADIKO MUSEO ETA BILDUMEN KOKAPENA

Euskadiko museo-erakundeen erdia ia-ia Gipuzkoako lurralde historikoan dago; lurralde horretan aurki dezakegu eskaintzaren % 47,5. Bigarren lekuan Bizkaia dago museoen % 36,1ekin; eta azkenik, Araban azpiegitura horien % 16,4 biltzen da.

1. Irudia Museoak eta bildumak, lurralde historikoen arabera (balio absolutua eta %).
2016




Oinarria: 61 museo eta bilduma

1.2.-MUSEO ETA BILDUMEN TIPOLOGIA

Euskadiko museo-eskaintzan nabarmentzekoak dira kultur ondarearen arlo zehatz batzuetan espezializatutako museo eta bildumak, Euskadiko museo-erakundeen tipologiaren laurden bat direlako ia-ia. Halaber, aipatzekoak dira zientziarekin eta teknologiarekin lotutako azpiegiturak (zientziaren eta teknikaren bilakaeraren adierazgarri diren objektuak biltzen dituzte) eta museo eta bilduma historikoak (halakoek pertsona ospetsuak, gertakari historikoak, eta abar erakusten dituzte). Aldiz, museo-etxeak eta arte garaikideko eta dekorazio-arteko museoak eta/edo bildumak ez daude hain zabalduta Euskadiko museo-sarean.

2. Irudia. Museoak eta bildumak, tipologiaren arabera (%). 2016



Oinarria: 61 museo eta bilduma

Museo eta bilduma bakoitzaren tipologia aztertuta bere kokalekuarekin arabera, Gipuzkoan garrantzirik handiena izaera espezializatuko eta zientzia eta teknologiko azpiegiturek dute. Bestalde, Araban, espezializatuez gain, intentsitate berberarekin nabarmentzen dira arkeologiari eta arte ederrei eskainitako museo-erakundeak. Bizkaiari dagokionez, nagusi dira museo eta bilduma historikoak eta arte ederrei eskainitakoak.

3. Irudia. Museo eta bildumak, tipologiaren eta lurralde historikoen arabera (% bertikala). 2016


Tipologia	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Arkeologikoa	20,0	4,5	6,9
Arte garaikidea	10,0	--	--
Dekorazio-arteak	--	4,5	--
Arte ederrak	20,0	18,2	--
Museo-etxea	--	--	3,4
Zientzia eta teknologia	--	13,6	17,2
Natura-zientziak eta historia naturala	10,0	4,5	3,4
Aztarnategiak	--	9,1	6,9
Especializata	20,0	13,6	34,5
Etnografia eta antropologia	10,0	4,5	10,3
Orokorra	--	4,5	10,3
Historikoa	--	22,7	6,9
Bestelakoak	10,0	--	--

Oinarria: 61 museo eta bilduma

1.3.-TITULARTASUNA ETA FIGURA JURIDIKOA

Euskadiko museo-erakundeen % 60 titulartasun publikokoa da; % 33,3, aldiz, titulartasun pribatukoa. Gainerako % 6,7n titulartasuna mistoa da.

4. Irudia Museoen eta bildumen titulartasuna (%). 2016



Oinarria: 60 museo eta bilduma

Toki-administrazioak (batik bat aldundiak eta udalak) dauka titulartasun publikoaren % 89. Autonomia Erkidegoko Administrazioaren nahiz beste erakunde batzuen (besteak beste enpresa publikoak, fundazio publikoak eta unibertsitateak) garrantzia askoz txikiagoa da.

Titulartasuna soil-soilik erakunde pribatuen esku duten museo eta bildumen artean, figura juridiko nagusia erakunde publiko eta pribatuen partaidetza duten fundazioak dira. Hala ere, beste figura batzuk ere badaude, adibidez elkarteak, elizako figurak eta beste batzuk, baina halakoek garrantzi erlatibo txikiagoa dute.

5. Irudia Titulartasun pribatuko museo eta bildumen figura juridikoa (%). 2016


Figura Juridikoa	Guztizkoaren gaineko %a
Fundazioa	70,0
Elkartea	15,0
Elizarena	10,0
Bestelakoak	5,0

Oinarria: 20 museo eta bilduma

1.4.-KUDEAKETA-MOTA

Museo-erakundeen titulartasunarekin gertatzen denari kontrajarrita, kudeaketa-mota aztertzean, nagusi da kudeaketa pribatuaren garrantzia; zehazki kasuen % 52,5 da halakoa. Neurri txikiagoan, kudeaketa erakunde publikoek egiten dute (% 39), eta erakunde mistoek museoan eta bildumen % 8,5 soilik kudeatzen dute.

6. Irudia. Museoak eta bildumak kudeatzen dituzten erakundeak (%). 2016



Oinarria: 59 museo eta bilduma

Kudeaketa pribatuko museo eta bildumen kasuan, neurri handi batean (% 48,4) kudeaketa horren arduradunak fundazioak dira (horien patronatuetan erakunde publikoek eta pribatuek hartzen dute parte). Kudeaketa hori egiten duten beste figura juridiko batzuek adierazgarritasun txikiagoa dute; halakoak dira, adibidez, sozietateak, elkarteak eta elizako erakundeak.

7. Irudia Museoen eta bildumen erakunde kudeatzaile pribatuak (%). 2016

Erakunde pribatuak	Guztikoaren %
Fundazioa	48,4
Sozietatea	19,4
Elkartea	16,1
Elizarena	6,5
Bestelakoak	9,6


Oinarria: 31 museo eta bilduma

Kudeaketa publikoko Euskadiko museo eta bildumen artean, kudeatzaile nagusi gisa toki-administrazioa nabarmentzen da. Zeregin hori gehienbat udalen, aldundien eta bestelako erakunde batzuen bitartez egiten da.

1.5- ERATUTAKO URTEAREN ARABERAKO ANTZINATASUNA

Museoek eta bildumek batez beste 26 urteko antzinatasuna dute, irekiera-urtea kontuan hartuta. Horietako asko (% 67,2) azken 25 urteetan sortu dira, eta talde horren barruan % 18 duela 10 urte baino gutxiago inauguratu zen. Beste alde batetik, Euskadiko museo-sarearen % 32,8k 25 urte baino gehiagoko antzinatasuna dauka.


8. Irudia Museoen eta bildumen antzintasuna (irekiera-urtearen arabera,%). 2016



Oinarria: 61 museo eta bilduma

Eremu geografikoa kontuan hartuta, antzintasunik txikieneko museo eta bildumak Gipuzkoakoak dira: 25 urte baino gehiagoko museo-erakundeen ehunekoa txikiagoa da (% 20,7). Duela gutxiago eratu direla ikusten da, halaber, lurralde historikoaren arabera ireki zirenetik batez beste duten adina ikustean. Adin hori 21,5 urte da Gipuzkoan eta 30 urte, aldiz, Araban eta Bizkaian.

9. Irudia Museoen eta bildumen antzintasuna, lurralde historikoaren arabera (irekiera-urtearen arabera, %bertikala). 2016




Oinarria: 61 museo eta bilduma

1.6.- LAGUNEN ELKARTEAK

Aztertutako museo-eskaintza osotik, % 29,5en babes-formula lagunen elkarteak dira.

10. Irudia. Lagunen elkarteak duten edota ez duten museoak eta bildumak (%). 2016



Oinarria: 61 museo eta bilduma

Arte garaikideko eta dekorazio-arteak museo eta bilduma guztiek dute lagunen elkarteak. Gainera, formula hori zientzia eta teknologiako museo eta bildumetara, museo eta bilduma orokorretara eta arte ederretako museo eta bildumetara ere hedatzen da. Museo-tipologia horietako bakoitzean % 50ek du lagunen elkarteak. Aldiz, natura-zientzia eta historia naturaleko guneeetan, museo-etxeetan eta aztarnategietako museoetan ez dago halako figurarik.


11. Irudia Lagunen elkarteak duten museoak eta bildumak, tipologiaren arabera (%) 2016



Oinarria: 18 museo eta bilduma

Lurralde historikoaren arabera, azaldu behar da lagunen elkarteen presentziarik handiena Bizkaiko museo-sarean dagoela. Bigarren lekuan Gipuzkoa dago, han lagunen elkarteen % 38,9 biltzen baita. Araban, formula horrek hedadura txikiagoa dauka (% 16,7).

12. Irudia Lagunen elkartea duten museoak eta bildumak, lurralde historikoaren arabera (%). 2016



Oinarria: 18 museo eta bilduma

2.


AZPIEGITURA, ZERBITZUAK ETA EKIPAMENDUAK

Kapitulu honetan museoen eta bildumen eraikin, ekipamendu eta zerbitzuen ezaugarri nagusiak aztertzen dira. Aldi berean, museo-erakundeek informazioaren eta komunikazioaren teknologiak nola erabiltzen dituzten nabarmentzen da.

2.1.- ERAIKINAREN EZAUGARRIAK

Batez beste, Euskadiko museo-azpiegituren antzinatasuna 186 urte da. Oreka dago 1900 baino lehenago egindako eraikinetan dauden museo eta bildumen (% 41,4) eta 1951tik aurrera egindako eraikinetan daudenen artean (% 39,7).

13. Irudia. Museo eta bildumen eraikinen eraikuntza urtea (%). 2016




Batez besteko antzinatasuna: **186 urte**

Oinarria: 58 museo eta bilduma

Azken urteetan Euskadiko museo eta bilduma gehienak eraberritu eta/edo birgaitu dira: zehazki, % 84 eraberritu da 2000. urtetik aurrera.


14. Irudia. Museoak eta bildumak eraberritu ziren azken urtea (%). 2016



Oinarria: 57 museo eta bilduma

Orokorrean, Euskadiko museoak eta bildumak jatorrian beste erabilera batzuetarako egindako eraikinetan daude, eta eraikin horiek museoak jartzeko egokitu dira. Hala gertatzen da kasuen % 67,2n. % 19,7 soilik dago helburu horretarako egindako eraikin batean, eta eraikinen % 13 bi aukerretarako eraiki zen.


15. Irudia Museoak eta bildumak, eraikin-motaren arabera (%). 2016



Oinarria: 61 museo eta bilduma

Beste alde batetik, kasuen % 70ean baino gehiagotan, museoa eraikin bakarrean dago; dena dela, nabarmentzekoa da gutxi gorabehera hogeita hamar museo eta bilduma eraikin bitan edo gehiagotan banatzen direla.

16. Irudia Museoak eta bildumak, eraikin-kopuruaren arabera (%). 2016



Oinarria: 61 museo eta bilduma

Euskadiko museoek 184.510 m²-ko azalera hartzen dute. Hala, Euskadin 1.000 biztanleko museo-azalera 85 m² da¹, museoen azalera osoarekin alderatuta.

17. Irudia Museoen eta bildumen batez besteko azalera erabilgarria, tipologiaren arabera (balio absolutua, m²). 2016

Museotarako azalera, guztira:
184.510 m²

Tipologia	Azalera erabilgarria (batezbestekoa, m ²)
Arte garaikidea	13.500,0
Arte ederrak	7.121,5
Zientzia eta teknologia	6.738,5
Orokorra	4.747,0
Dekorazio arteak	2.460,0
Aztarnategiak	2.191,0
Espezializatua	1.614,1
Historikoa	1.435,9
Arkeologikoa	1.133,4
Museo-etxea	826,2
Etnografia eta antropologia	457,2
Natura zientziak eta historia naturala	373,3

Oinarria: 57 museo eta bilduma

2.2.- ZERBITZUAK ETA EKIPAMENDUAK

Nabarmentzekoa da Euskadiko museoek eta bildumek eskaintzen dituzten zerbitzu eta ekipamenduen aniztasuna. Batez ere erakusketa iraunkorrari buruzko informazioaren eskuragarritasuna azpimarratu nahi dugu. Zerbitzu hori aztertutako museo-erakunde guztiek eskaintzen dute. Halaber, nabarmentzekoa da eskuragarri daudela bisita gidatuak (% 96,7) eta bestelako informazioa -liburuxkak, adibidez- (% 88,5). Beste zerbitzu batzuk, aldiz, askoz neurri txikiagoan identifikatu dira: adibidez, ingurumen-kontrola (% 39,4) edo euskarri elektronikoko gidak (% 34,4).

¹ Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleria, 2016ko datuen arabera (2016ko azaroaren 16koak), 2.171.886 lagunekoa da (Iturria: Eustat. Adierazle demografikoak eta herritarren udal-estatistika).

18. Irudia. Museoak eta bildumak, zerbitzu- eta ekipamendu-baliabideen arabera (%).2016

	Baliabideak	Museoen %	
Zerbitzuak	Erakusketa iraunkorrei buruzko informazioa	%100,0	
	Bisita gidatua	%96,7	
	Bestelako informazioa (liburuxkak...)	%88,5	
	Desgaitasunen bat duten pertsonentzako informazio eskuragarria	%50,8	
	Hirugarrenei espazioak alokatzea	%49,2	
	Ingurumen-kontrola	%39,3	
	Gidak euskarri elektronikoan (audiogidak/zeinugidak)	%34,4	
Ekipamendua	Aretokoak (panelak, aretoko orria eta abar)	%96,7	
	Desgaitasunen bat duten pertsonentzako sarbidea	%85,2	
	Saltokia/Liburutegia	%73,8	
	Jarduera didaktikoetarako lekua	%72,1	
	Liburutegia	%65,6	
	Ikus-entzunezko gela	%63,9	
	Ekitaldi-aretoa	%59,0	
	Ikertzaileentzako aretoa	%41,0	
	Aparkaleku publikoa	%34,4	
	Zaharberritzeko tailerra	%29,5	
	Kafetegia/Jatetxea	%19,7	
	Argazkigintza-laborategia	%11,5	


Oinarria: 61 museo eta bilduma (erantzun anitza)

Ekipamenduari dagokionez, ohikoena aretoetan egoten den informazioa (panelak, aretoko orria, eta abar) da (% 96,7), eta horrekin batera desgaitasunen bat dutenentzako sarbidea (% 85,2). Gutxien dauden ekipamendua argazkigintzako laborategiak (% 11,5) eta ekipamendu osagarriak -adibidez jatetxeak eta kafetegiak- dira (% 19,7).

2.3.- INFORMAZIOAREN ETA KOMUNIKAZIOAREN TEKNOLOGIAK

Euskadiko museoetan eta bildumetan informazioaren eta komunikazioaren teknologiek presentzia handia dute, gehienek ekipamendu informatikoak eta web orriak dituztelako.


19. Irudia. Museoak eta bildumak, ordenagailurik webgunerik duten zehaztuta (%). 2016



Oinarria: 61 museo eta bilduma

Tipologiaren arabera, web orria zabalkunderako/komunikaziorako %100ean oraindik hartu ez duten museoak etnografia eta antropologiari buruzkoak, historikoak eta zientzia eta teknologikoak dira.


20. Irudia. Museoetan eta bildumetan web orria izatea, tipologiaren arabera (%). 2016



Oinarria: 61 museo eta bilduma

Ekipamendu informatikoen erabilerari dagokionez, bereziki nabarmendu behar da administrazio-zereginetan laguntzeko erabiltzen direla, baina bisitariei informazioa emateko eta Internetera sartzeko baliabide gisa ere erabiltzen dira. Datu-baseetan funtsak prozesatzeko ere erabiltzen dira, neurri txikiagoan (% 68,4).


21. Irudia. Ordenagailuaren erabilera museo eta bildumetan (%). 2016



Oinarria: 57 museo eta bilduma (erantzun anitza)

Web orrien helburu nagusia bisitariei oinarrizko informazioa ematea da (% 100): helbidea, programazioa, orduak, tarifak eta abar. Halaber, bisitaria museoarekin berarekin komunikatzeko bide gisa ezartzen dira (% 88), bai eta museo-erakundeak egiten dituen hezkuntza-jarduerak interesdunei eskaintzeko gune gisa ere.

22. Irudia. Museoei eta bildumei buruzko web orrien helburuak (%).2016



Oinarria: 57 museo eta bilduma (erantzun anitza)

3.


SARRERA

Kapitulu honetan aztertuko da zer irekiera-modalitate duten Euskadiko museoek, bai eta sarrera mota eta sartzeko aplikatzen diren tarifak ere.

3.1.- JENDEARENTZAT IREKITZEKO MODALITATEA ETA SARRERA MOTA


Orokorrean, azterketan parte hartu duten Euskadiko museo eta bildumek euren atearak etengabe irekitzen dituzte, hau da, urteko hilabete guztietan, asteko egunen batean izan ezik (% 95). Gainera, ia-ia % 80k jendearentzat urtean 300 egunetan baino gehiagotan irekitzen du.

23. Irudia. Museoak eta bildumak, jendaurreko irekitze-modalitatearen arabera (%). 2016



Oinarria: 61 museo eta bilduma


24. Irudia. Museoak eta bildumak, urtean irekitako egun-kopuruaren arabera (%). 2016



Oinarria: 58 museo eta bilduma

Kasu batean izan ezik, aztertutako Euskadiko museo-espazio guztiek euren instalazioetara mugarik gabeko sarrera eskaintzen dute.


25. Irudia. Museoetan eta bildumetan sartzeko moduak (%). 2016



Oinarria: 61 museo eta bilduma

Aldiz, museo eta bilduma kopuru garrantzitsu batera sartzeko, aurretiaz eskaria egin behar da. Egoera hori kasuen % 37,7n gertatzen da. Eskakizun hori are zorrotzagoa da taldean etorritz gero (% 65), eta neurri txikiagoan gainerako kasuetan (% 35).

26. Irudia. Museo eta bildumak ikusteko aldeztutako eskaera (%). 2016




Oinarria: 61 museo eta bilduma

3.2.- SARRERAREN EZAUGARRI EKONOMIKOAK

Museo- erakunde gehienetara sartzeko tarifa bat ordaindu behar da eta %24,6 baino ez dira doan.


27. Irudia. Museoen eta bildumen sarrera-mota (%). 2016



Oinarria: 61 museo eta bilduma

Museoak eta bildumak tipologiaren arabera aztertuta, arte garaikideari eta dekorazio-artei buruzkoek, museo-etxeek, natura-zientziei eta historia naturalari buruzkoek eta orokorreko sartzeko tarifa bat dute (sartzea kasu batean ere ez da doakoa).

28. Irudia. Museoen eta bildumen tarifa mota, tipologiaren arabera (%). 2016



Oinarria: 61 museo eta bilduma

Sarrera kobratzen duten museo eta bildumen artean, % 75ek hainbat tarifa mota bereizten ditu bisitarien ezaugarrien arabera. Hamar museo-erakundetatik zazpik baino gehiagok tarifa osoak eskaintzen dituzte, hau da oinarritzko tarifa, aldi baterako erakusketak sartu gabe (azken horiek berariazko tarifak dituzte). Era berean, nabarmentzekoak dira talde jakin batzuei eskaintzen zaizkien tarifa murriztuak edo doako tarifak. Azkenik, Euskadiko museo-sarean gutxien eskaintzen diren tarifa motak pase bereziak dira (gutxi gorabehera % 43).


29. Irudia. Sarrera ordaindua duten museo eta bildumen tarifa mota (%). 2016




Oinarria: 61 museo eta bilduma (erantzun anitza)

Doako tarifak eskaintzen dituzten museo eta bildumen artean, onuradun nagusiak haurrak izaten dira, kasuen %85ean. Aldiz, tarifa murriztuak gehienbat taldeei, ikasleei eta adineko pertsonari eskaintzen zaizkie.

30. Irudia. Museoak eta bildumak, doako sarrerak eta tarifa murriztukoak balia ditzaketen taldeen arabera (%). 2016



Oinarria: 40 museo eta bilduma (erantzun anitza)



Oinarria: 41 museo eta bilduma (erantzun anitza)

4.


MUSEOEN JARDUERAK

Kapitulu honetan Euskadiko museo eta bildumen bisitari-kopurua, erakusketak, argitalpenak eta erakunde horiek sustatzen dituzten beste jarduera batzuk aztertuko ditugu.

4.1.- MUSEO ETA BILDUMEK IZANDAKO BISITARIAK

Eskuragarri dagoen informazioa oinarri hartuta, 2016an guztira 2.996.516 lagunek bisitatu zituzten Euskadiko museo-espazioak.

31. Irudia. Museo eta bildumetako bisitari-kopurua lurralde historikoaren arabera (% eta balio absolutua). 2016



Oinarria: 61 museo eta bilduma

Espazio horietako bisitariak lurralde historikoaren arabera nola banatu diren aztertuta, esan behar da bisitari kopuru gehiena Bizkaian egon dela, Euskadiko museo kopururik handiena izan ez arren: Euskadiko museoetara joaten diren bisitarien % 60 ia-ia hartzen du. Gipuzkoaren kasuan % 33 da, eta gainerakoak, % 7, Arabara joaten dira.

Bisitariak museo-tipologiaren arabera aztertuz gero, bisitarien ehunekorik handiena arte ederretako museotan ikusten da, zehazki % 50,1. Atzetik doaz, alde nabarmenarekin izan arren, museo eta bilduma orokorrak (% 17,3) eta zientzia eta teknologiari buruzkoak (% 9,5). Bisitari-bolumenik txikiena duten museo-espazioak museo-etxeak eta dekorazio-artei buruzkoak dira; bietan bisitarien ehunekoa % 0,5etik beherakoa da.

32. Irudia. Museo eta bildumetako bisitari-kopurua, tipologiaren arabera (balio absolutua eta %). 2016

Tipologia	Aurreikusitako bisitari-kopurua	Guztizkoaren gaineko %-a
Arte ederrak	1.501.458	50,1
Orokorra	517.065	17,3
Zientzia eta teknologia	284.800	9,5
Espezializatua	251.752	8,4
Historikoa	136.979	4,6
Arte garaikidea	87.104	2,9
Aztarnategiak	63.393	2,1
Arkeologikoa	53.106	1,8
Etnografia eta antropologia	25.214	0,8
Natura-zientziak eta historia naturala	16.630	0,6
Dekorazio-arteak	9.257	0,3
Museo-etxea	2.800	0,1
Bestelakoak	46.958	1,6
GUZTIRA	2.996.516	100,0

Oinarria: 61 museo eta bilduma

Lurralde historiko bakoitzeko bisitari kopuruaren azterketa xehatuagoak honako emaitza hauek erakusten ditu:

- **Araban**, 10 bisitaritatik 4 arte garaikideko museoetan egon dira.
- **Bizkaian**, bisitari gehienak arte ederretako museoan inguruan biltzen dira (c %82 inguru).
- **Gipuzkoan** oreka handiagoa dago tipologiaren artean, baina visita gehienak museo eta bilduma orokorrek eta zientzia eta teknologiari buruzkoek jasotzen dituzte.


33. Irudia. Museo eta bildumetako bisitari kopurua, tipologiaren eta lurralde historikoaren arabera (balio absolutua). 2016

Tipologia	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	GUZTIRA
Arkeologikoa	9.451	15.600	28.055	53.106
Arte garaikidea	87.104	/	/	87.104
Dekorazio-arteak	/	9.257	/	9.257
Arte ederrak	34.941	1.466.517	/	1.501.458
Museo-etxea	/	/	2.800	2.800
Zientzia eta teknologia	/	31.103	253.697	284.800
Natura-zientziak eta historia naturala	12.041	2.069	2.520	16.630
Aztarnategiak	/	27.413	35.980	63.393
Espezializatua	14.915	70.075	166.762	251.752
Etnografia eta antropologia	11.599	9.000	4.615	25.214
Orokorra	/	23.939	493.126	517.065
Historikoa	/	129.093	7.886	136.979
Bestelakoak	46.958	/	/	46.958
GUZTIRA	217.009	1.784.066	995.441	2.996.516

Oinarria: 61 museo eta bilduma


la-ia museoen %87n izan dira 2016an bisitari atzerritarrak. Guztira beste herrialde batzuetako 1.064.848 bisitari egon direla kalkulatzen da. Horrek esan nahi du Euskadiko museoetara 2016an joan diren pertsona guztien %35,5 beste herrialde batzuetakoa izan dela.

34. Irudia. Atzerriko bisitariak izan dituzten museo eta bildumak (%). 2016



Oinarria: 61 museo eta bilduma

35. Irudia. Bisitarien banaketa, nazionalitatearen arabera (%). 2016



Oinarria: 61 museo eta bilduma

Beste herrialde batzuetako bisitarien kopuruak lurralde historikoaren arabera aztertuz gero, 2016an atzerritarren kopururik handiena Bizkaiak hartu du, bai Euskadi osoan (%81,2) bai lurralde historikoan (Bizkaiko museoak bisitatu dituztenen artean %48,5 izan dira atzerritarrak). Aurrakoko muturrean dago Araba. Lurralde horrek beste herrialde batzuetako bisitari-kopururik txikiena du.


36. Irudia. Atzerriko bisitariak izan dituzten Euskadiko museoak eta bildumak, lurralde historikoaren arabera (balio absolutua eta %). 2016

Lurralde Historikoa	Beste herrialde batzuetako bisitari kopurua	Atzerritarren % , LHko bisitarien kopuru osoa oinarri hartuta	Atzerritarren %, Euskadiko bisitari atzerritar guztiak oinarri hartuta
Araba	18.092	8,3	1,7
Bizkaia	864.571	48,5	81,2
Gipuzkoa	182.185	18,3	17,1
Euskadin GUZTIRA	1.064.848	35,5	100,0

Oinarria: 53 Museo eta bilduma

Arte ederretako museo eta bildumetan biltzen da bisitarien ehunekorik handiena, zehazki % 76,6. Horien atzetik doaz, distantzia handira, gai orokorretako museo-erakundeak (% 11), espezializatuak (% 4,5) eta historikoak (% 3,6).

37. Irudia. Museo eta bildumetan izandako bisitari atzerritarren kopurua, tipologiaren arabera (%).2016




Oinarria: 53 museo eta bilduma

4.2.- ERAKUSKETAK ETA BESTE JARDUERA BATZUK

Ikerketan parte hartu duten hamar museo eta bildumatatik zortzik 2016an inauguratu edo hasi diren aldi baterako erakusketak egin dituzte. Hala ere, museo-erakunde bakoitzaren tipologiaren arabera diferentzia nabarmenak ikusten dira.


38. Irudia. Museo eta bildumetako aldi baterako erakusketak (%). 2016



Oinarria: 61 museo eta bilduma

Arte garaikideko, dekorazio-arteak, zientzia eta teknologiako eta izaera historikoko museo eta bildumen kasuan, aldi baterako erakusketak egitea jardura ohikoagoa da. Beste alde batetik, aztarnategien, etnografia eta antropologia edo arkeologiako museo eta bildumen kasuan, halako erakusketak ez dira jardura hain orokorrak.

39. Irudia. Museo eta bildumetan egindako aldi bateko erakusketak, tipologiaren arabera (%). 2016



Oinarria: 49 museo eta bilduma


Euskadiko museo eta bildumen %70ek beren museo-jardura osatzeko beste jardura batzuk egiten ditu. Ekimen osagarri horien artean hezkuntzakoak nabarmentzen dira. Museo-sarearen %84k egiten ditu halakoak, eta %64k, berriz, ikastaroak eta tailerrak. Jardura osagarri gisa hitzaldi eta solasaldiak ere nabarmentzen dira. Kasuen %59n egiten dira.

40. Irudia. Museoek eta bildumek egindako beste jarduera batzuk (%). 2016



Hezkuntza-jardueren multzoaren barruan, museo eta bilduma gehienek (% 86,9) haurrentzako ekimenak egiten dituzte. Bigarren mailan, % 72k baino gehiagok familientzako jarduerak antolatzen ditu; eta % 52,5ek adineko pertsonentzako ekimenak. Hala ere, dibertsitate funtzionala duten pertsonentzat eta gutxiengo etnikoentzat egiten da jarduera gutxien.

41. Irudia. Museo eta bildumetan egindako hezkuntza jardueren tipologia (%). 2016




Oinarria: 61 museo eta bilduma (erantzun anitza)

4.3.- ARGITALPENAK

Aztertutako Euskadiko museo-sarearen %70ek baino gehiagok dio 2016an argitalpenen bat egin duela.


42. Irudia. Museo eta bildumen argitalpenak (%). 2016



Oinarria: 61 museo eta bilduma

Dibulgazio-materialak dira Euskadiko museo eta bildumek argitaratutako eduki nagusia (% 81). Neurri txikiagoan nabarmentzen dira argitalpen didaktikoak eta gidak, eta horien atzetik doaz katalogo zientifikoak, eta azken tokian, aldizkako argitalpenak (% 28).


43. Irudia. Museoek eta bildumek 2016an egindako argitalpenak (%). 2016



Oinarria: 43 museo eta bilduma (erantzun anitza)

Argitalpenak egiteko gehien erabiltzen den euskarria papera da, aztertutako erakundeen % 98k dioenez. Bigarren tokian, eta museo-erakundeen erdiaren baino apur bat gehiagoren babesarekin, argitalpenak egiteko web orrian eskuragarri dagoen euskarri elektronikoa nabarmentzen da; eta azkenik, euskarri elektronikoan egindako argitalpenak (% 39,5).

44. Irudia. Museo eta bildumek 2014an argitaratutako lanetan erabilitako euskarria (%). 2016



Oinarria: 43 museo eta bilduma (erantzun anitza)

5.

MUSEOETAKO LANGILEAK


Kapitulu honetan Euskadiko museo-sarearen zerbitzura dauden langileei buruzko oinarritzko informazioa biltzen da. Horretarako hainbat adierazle aztertzen da lan-harremanari, lanbide-kategoriari, generoari eta lanaldi motari dagokienez.

5.1.- MUSEO ETA BILDUMEI ATXIKITAKO LANGILEAK ETA HORIEN LAN-HARREMANA

Aztertutako 61 museo eta bildumak oinarri hartuta, 2016an Euskadin museo-jardueretan 639 pertsona ari ziren lanean. Hala, batez beste, museo-erakunde bakoitzaren plantilla 11 lagunek baino apur bat gutxiagok osatzen dute.

Ordainsaria jasotzen duten langileak gehienak dira plantilla osoan, eta nabarmentzekoak dira lanpostu iraunkorra duten pertsonak (% 74,5), aldi baterako lanaren aldean (% 15,2).

45. Irudia Museo eta bildumetara atxikitako langileak, horien lan-harremanaren arabera (%). 2016




Oinarria: 61 museo eta bilduma

Museo-sareko plantilla osatzen duten pertsonen artean nabarmentzekoa da boluntarioen presentzia. Horiek enplegu guztien % 8,1 dira. Gainera, nabarmentzekoa da ordainsaririk jasotzen ez duten langileak ere daudela, guztien % 2,2.

Museoetan praktikak egiten dituzten langileei dagokienez, parte hartu duten erakundeen % 21ek gutxi gorabehera adierazi du bekadunak edo praktiketako ikasleak dituela 2016an.


46. Irudia Museo eta bildumetan bekadunak edo praktketan ari diren ikasleak kontratatzea (%)



Oinarria: 61 museo eta bilduma

5.2.- LANGILEEN LANBIDE-KATEGORIA

47. Irudia. Museo eta bildumei atxikitako langileak, horien lanbide-kategoriaren arabera (%). 2016



Oinarria: 61 museo eta bilduma

Museo eta bildumen jardueraren kudeaketarekin zuzenean lotutako enpleguak aztertutako Euskadiko museo-sareari atxikitako giza baliabide guztien % 63,8 dira. Ehuneko proportzioa kontuan hartuta, ordena hau nabarmentzen dugu kudeaketa-jardueraren barruko enpleguei dagokienez:

- Teknikariak (espezializatutako profesionalak, adibidez kontserbazioko eta zaharberrikuntzako langileak, gidariak,...) nabarmentzen dira gainerako lanbide-kategoriaren gainera, eta museo-jardueraren kudeaketari lotutako langileen erdia dira (% 50,5).
- Administrazioko langileak ere asko dira museoetako jardueraren kudeaketari lotutako enpleguen barruan, % 40 inguru.

Bestalde, laguntzako jarduerari eta zeharkakoei lotutako enpleguak (mantentze-lanetarako langileak/garbitzaileak eta zaintzako/segurtasuneko langileak) museo eta bildumetako enplegu guztiaren % 35 baino zertxobait gehiago dira, baina gehienetan azpikontrataturako zerbitzuak izaten dira. Bigarren talde horren barruan nabarmentzekoak dira "Beste langile batzuk" izendapenaren barruko langileak.

Lanbide-kategoriaren eta lan-harremanaren arabera museo eta bildumetara atxikitako langileen banaketaren azterketak zenbait alde nabarmen ditu.

48. Irudia. Museo eta bildumei atxikitako langileak, horien lanbide kategoriaren eta lan-harremanaren arabera (% horizontal). 2016

Lanbide-kategoria	Ordaindua/ lanpostu iraunkorra	Ordaindua/ aldi baterako lanpostua	Ordaindu gabea	Langile boluntarioak	GUZTIRA
Zuzendaritza	80,0	6,7	13,3	0,0	100,0
Langile espezializatuak	78,6	16,5	1,9	2,9	100,0
Administrazioko langileak	89,2	5,1	1,3	4,5	100,0
Mantentze lanetarako langileak eta garbitzaileak	79,4	20,6	0,0	0,0	100,0
Zaintza- eta segurtasun-langileak	81,4	18,6	0,0	0,0	100,0
Bestelako langileak	36,7	25,7	1,8	35,8	100,0


Oinarria: 61 Museo eta bilduma

Administrazioko langileek eta zaintzako eta segurtasuneko langileek betetzen dituzten lanpostuak dira neurririk handienez lan-harreman iraunkorra dutenak, eta horietatik oso hurbil daude mantentze lanetarako langileak eta garbitzaileak eta pertsona espezializatuak. Hau da, bestelako langileak izan ezik, gainerako lanbide-kategoriak orokorrean enplegu iraunkorra dute. Bestalde, aldi baterako kontratazioa ohikoagoa da bi kategorian: bestelako langileen artean eta mantentze-lanetan eta garbiketaren artean. Ordaindu gabeko enpleguen artean, nabarmentzekoa da Zuzendaritzari lotutako kategoria.

5.3.- LANGILEEN BANAKETA, SEXUAREN ARABERA

Generoa kontuan hartuta, nabarmentzekoa da emakumeek Euskadiko museo-erakundeen plantilla osoan duten presentzia, % 62, gizonen % 38aren aldean.


49. Irudia. Museo eta bildumetako langileen banaketa, sexuaren arabera (%). 2016



Oinarria: 61 museo eta bilduma

Lanbide-kategoriak generoaren arabera aztertuta, zenbait berezitasun ikusten dira. Langile espezializatuak eta, are nabarmenago administrazioko langileen kategoriaren barruan, nabarmentzekoa da emakumeen presentzia handiagoa; bestelako langileen kasuan ere bai. Hala ere, gainerako kategorientzat, hain zuzen ere zuzendaritzako langileentzat, mantentze-langile eta garbitzaileentzat eta zaintza- eta segurtasun-langileentzat, gizonen presentzia da nagusi, intentsitate txikiagoarekin bada ere.

50. Irudia Museo eta bildumei atxikitako langileak, sexuaren arabera eta horien lanbide-kategoriaren arabera (%). 2016




Oinarria: 61 museo eta bilduma

5.4.- LANALDI-MOTA

Euskadiko museo en eta bildumen enpleguan nagusi da lanaldi osoa (% 65) lanaldi partzialaren aldean (% 35).

51. Irudia. Museo eta bildumetako langileen banaketa, lanaldiaren arabera (%). 2016




Oinarria: 61 museo eta bilduma

Museo eta bildumetan lan egiten dutenen artean nolabaiteko desberdintasunak nabari dira, lanbide-kategoriaren arabera. Zaintza- eta segurtasun-arloetako langile ia guztiak lanaldi osoz aritzen dira. Halaber, garrantzitsua da zuzendaritzako langileek, langile espezializatuak eta administrazioko langileek lanaldi osoz duten kontratazioaren ehunekoak.

Lanaldi partzialeko dedikazioa bestelako langileen artean eta mantentze-lanetan eta garbiketara aritzen direnen artean ikusten da batez ere.

52. Irudia. Museo eta bildumei atxikitako langileak, lanaldi-motaren eta lanbide-kategoriaren arabera (%). 2016



Oinarria: 61 museo eta bilduma

6.


DATU EKONOMIKOAK

Jarraian Euskadiko museoen eta bildumen finantza-informazioari buruzko azterketa laburra egingo da, eta zehazki finantzaketaren eta diru-sarreraren datuei buruz.

Euskadiko museoen % 90ek zenbait finantzaketa-iturri ditu, eta, gehienetan, hiru bide konbinatu ohi ditu: diru-sarrera propioak, sektore publikoko diru-sarrerak eta ekarpen pribatuak.

Hainbat finantzaketa-iturri daukaten museo-erakundeen arten (% 90), nabarmentzekoa da diru-sarrera propioen eta diru-laguntzen arteko konbinaketa, Euskadiko museo-sarearen % 55ek dioenez. Aldiz, bide bakarretik finantzatzen diren museo eta bildumen artean (% 9,8), kasuen % 83n sektore publikokoak dira.

53. Irudia. Museoen eta bildumen finantzaketa-iturriak (%). 2016



Oinarria: 61 museo eta bilduma (Erantzun anitza)

Museoek eta bildumek diru-sarrerak bi iturritatik sortzen dituzte, bisitariei sarrerak salduz eta beste diru-sarrera batzuen bitartez; azken horien artean besteak beste nabarmenduko genuke eremuen alokairua eta/edo produktuen salmenta, museoen denda propioetan.

54. Irudia. Museoek eta bildumek sortutako diru sarrerak (%). 2016



Oinarria: 31 museo eta bilduma (erantzun anitza)


7.

MUSEO-FUNTSAK

Kapitulu honetan aztertzen dira Euskadiko museoen eta bildumen funtsak 2016an.

Euskadiko funtsetan, guztira, 951.821 unitate zenbatu dira. Ia-ia fondo horiek guztiak (% 93) museo-erakundeen beraien bilduma egonkorrekoak dira². Gainerako ehuneko txikia, berriz, beste erakunde batzuen edo partikularren funtsak dira.

55. Irudia. Bildumaren beraren museo-funtsak edo beste erakunde batzuei dagozkienak (%). 2016



Oinarria: 57 museo eta bilduma

Bilduma egonkorren funtsen gaikako sailkapena aztertuta, azterketan parte hartu duen Euskadiko museo-sareko ehunekorik handienak bestelako gaitzat jotzen ditu bere funtsak (% 75,7). Askoz neurri txikiagoan aurkitzen dira natura-zientzietako museoak (% 8), etnografikoak eta antropologikoak, eta arteetakoak (bi gai horien presentzia % 5,4 da).

² Bilduma egonkorrekin honako hau adierazi nahi da: erakunde titularrek museoari esleitutako kultura-ondasunen multzoa, museo publikoa bada; eta museoaren titular den erakundearen edo pertsona fisikoaren jabetzako kultura-ondasunen multzoa, museo pribatua bada.


56. Irudia. Museo-funts egonkorrak, gaiaren arabera sailkatuta (%). 2016

Sailkatuta	%
Natura-zientziak	8,0
Etnografia eta antropologia	5,4
Artea	5,4
Zientzia eta teknologia	2,9
Historia	1,2
Arkeologia	0,9
Dekorazio-arteak	0,4
Bestelako gaiak	75,7

Oinarria: 57 museo eta bilduma

Kontabilizatutako funtsen guztizkotik, % 71 natura-zientzien eta historia naturalaren museoetan dago. Horrez gain funts horiek gai orokorretako museoetan (% 7,6), espezializatuetan (% 6,4) eta historikoetan (% 4,5) kokatzen dira.

57. Irudia. Museo-funts egonkorrak, museo eta/edo bildumaren tipologiaren arabera (%). 2016




(1) Bildumako funtsak sailkatzeko gainerako tipologiak hauek dira: Arkeologia, etnografia eta antropologia, aztarnategiak eta beste batzuk.

Oinarria: 57 museo eta bilduma

Euskadiko museo eta bildumen % 78,7k jendaurrean ditu ikusgai museoetako funtsak. Erakunde horien artean, % 50ek funtsen % 25 baino gutxiago du ikusgai: aldiz, % 29,2k artelanen % 75etik gora.

58. Irudia Jendaurrean jarritako funtsak (%). 2016



Oinarria: 48 Museo eta bilduma

8.

2016ko ADIERAZLE NAGUSIAK

- **Gipuzkoa, museo-eskaintzarik handiena duen lurraldea.** Museoen eta bildumen %48 dago han. Bizkaian %36 dago, eta azkenik, Araban. %16.
- **Museo eta bilduma espezializatuak Euskadiko museo eskaintzaren %25 dira gutxi gorabehera.** Nabarmentzekoak dira zientzia eta teknologiari buruzkoak eta historikoak.
- **Museo eta bilduma gehienak titulartasun publikokoak dira (%60),** batez ere toki-administrazioarenak (%88,9). Euskadiko museo-sarearen heren bat titulartasun probatukoa da, gehienbat fundazioena (%70), horien patronatuetan erakunde publikoek eta pribatuek hartzen dute parte.
- **Kudeaketa batik bat erakunde pribatuek egiten dute (%52,5),** eta fundazioak nabarmentzen dira erakunde kudeatzaile pribatu gisa (%48). Erakunde kudeatzaile publikoen esku biltzen da museo-sarearen %39.
- **Euskadiko museo-sektorearen zati handi batek 25 urtetik gorako antzintasuna dauka (33%).** Beste muturrean, 10 urtetik beherako ibilbidea duten museo eta bildumak gutxi gorabehera %18 dira. Batez besteko antzintasuna 26 urte da.
- **Euskadiko museoek 184.510 m²ko azalera hartzen dute.** Hala, Euskadin 1.000 biztanleko museo-azalera 85 m² da, museoaren azalera osoarekin alderatuta.
- **Zerbitzu- eta ekipamendu-mota ugari, kalitatezko zerbitzua eskaintzeko.** Euskadiko museo eta bilduma gehienek euren zerbitzuen artean erakusketa iraunkorrei buruzko informazioa daukate; era berean, ia-ia museo-erakunde guztiek (%96,7) bisita gidatuak ere eskaintzen dituzte. Zerbitzuko ekipamenduei dagokienez, batez ere aretoko informazio orientatzailea (panelak eta abar) eta desgaitasunen bat duten pertsonentzako sarbideari buruzko informazioa dago eskuragarri.
- **Informazioaren eta komunikazioaren teknologia berriak nabarmen txertatu dira jarduerak ikusarazteko eta horiei laguntzeko bide gisa.**

- **Kultura-azpiegituren hiru laurdenek sartzeko tarifa dute.** N Hala ere, ohikoa da talde jakin batzuei (taldeak, ikasleak eta adinekoak) tarifa murriztuak aplikatzea, bai eta doako tarifak ere (haurrak, batik bat).
- **Euskal museoetan ia-ia 3 milioi bisitari egon dira, eta bisitari atzerritarrak ugari izan dira (% 35,5).** Bizkaia da bisitarien kopururik handiena biltzen duen lurralde historikoa. Museo eta bilduma gehienetan (% 87) beste herrialde batzuetako bisitariak egon dira, eta atzerritar bisitariak guztira 1.064.848 lagun izan direla kalkulatzen da.
